

# Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntza-programa

- Oinarriak -

## Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntza-programa

### 1. Programaren xedea, araubide juridikoa eta laguntzaren nondik norakoa

- 1.1. 3E2030 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan gauzatutako Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren misioa energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.
- 1.2. Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailari atxikitako erakunde publikoa den Energiaren Euskal Erakundeak (hemendik aurrera «EEE») bere gain hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean "EAE") sektore publikoaren energia-alorreko jarduera eta jarduketak planifikatu, koordinatu eta kontrolatzea, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenen eremuan emandako jarraibideekin bat etorritz.
- 1.3. EAEen energia berriztagarri elektrikoaren hedapena sustatze aldera, programa honen xedea da energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko jarduketak egitea (aurrerantzean, "Programa", "Laguntza-programa").
- 1.4. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurreratzean "DLO") 8.1 artikuluan xedatutakoaren eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen (aurrerantzean, "20/2023 Legea") 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EEEren Zuzendaritza Kontseiluak 2025eko otsailaren 5ean egindako bileran 2025 urterako EEEren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen.

Helburuen aurreikuspena honako hau da:

- Diruz lagundutako proiektuen kopurua. 13.000
- Instalatzeko potentzia elektrikoa: 150 MW
- Instalatzeko biltegitarte elektrikoaren gaitasuna: 136 MWh
- Instalatzeko potentzia termikoa: 100 MW

EEEren 2025erako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.5. Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.6. Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koak (aurrerantzean «651/2014 Erregelamendua»), zenbait laguntza-kategoria merkatu bateratuarekin bateragarritzat jotzen dituenak Tratatu 107. eta 108. artikuluko aplikatuz (EBAO 2014 L 187), enpresatza hartutako eskatzaileen kasuan, Laguntza-programa honetan aurreikusitako laguntzak aipatutako Erregelamenduaren esparruan sartzen dira, eta, bereziki, 651/2014 Erregelamenduaren 41. artikuluan (Iturri berriztagarrietatik sortutako energia sustatzeko inbertsioetarako laguntzak), azken idazketaren arabera, 651/2014 Erregelamendua eta 2022/2473 Erregelamendua aldatzen dituen 2023ko ekainaren 23ko 2023/1315 Erregelamendua (EBAO L 167/1) gehitutako aldaketan ondoren.

- 1.7. Laguntza-programa honen ondorioetarako, eta 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskineko 1. eta 2. artikuluetan araututakoaren arabera, honako hau da enpresa: «Jarduera ekonomiko bat egiten duen erakunde oro, edozein dela ere haren forma juridikoa" (hau da, merkatu jakin

*batean ondasunak eta zerbitzuak eskaintzean dituen edozein jarduera).*

*Bereziki, enpresatzat hartuko dira, bakarka edo familiakoekin, artisautzako edo bestelako jarduerak egiten dituzten entitateak, baita erregularitasunez jarduera ekonomikoren bat gauzatzen duten pertsona sozietateak eta elkarteak ere».*

651/2014 Erregelamenduaren barnean hartuta dauden laguntzaren xede diren proiektuek frogatu beharko dute Laguntza-programa honen babesak eragin sustagarria duela (651/2014 Erregelamenduko 6. artikulua). Xede horietarako, laguntzek eragin sustagarria dutela ulertuko da baldin eta onuradunak, dirulaguntzaren xede den proiektuan edo jardueran lanean hasi baino lehen, laguntza-eskaera bat aurkeztu badu, eta laguntza-eskaera horrek, gutxienez, 651/2014 Erregelamenduko 6.2 artikuluan adierazitako informazioa jasotzen badu. Horrenbestez, ez dira onartuko 651/2014 Erregelamenduaren esparruan dauden proiektu eta lanetarako eskaerak baldin eta laguntza eskatu aurretik gauzatzen hasiak baldin badira, 651/2014 Erregelamenduaren 2. (23) artikulua definitzen duen proiektuaren edo lanen hasieratzat. Horregatik eskatuko da instalazioen egikaritzeari dagozkion egikaritzeko edozein konpromiso irmo, onartutako aurrekontu, eskari, kontratu, faktura eta ordainagiriak eskaera eskatu ondorengoak izatea.

## **2. Laguntzen pertsona onuradunak**

**2.1.** Jarduera mota bakoitzerako aurreikusitakoaren arabera, laguntza-programaren deialdiko dirulaguntzen onuradun izan daitezke, oinarri hauetan adierazitako irizpideen arabera:

- a) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona fisikoak.
- b) Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona juridikoak, izaera pribatukoak, edo pertsona fisikoak.
- c) Partzuergoak, elkarteak edo enpresen edo pertsona fisikoen taldeak, izaera juridikoa dutenak eta ez dutenak, besteak beste:

- i. Jabetza horizontalari buruko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera araututako egoitza sektoreko jabeekideen erkidegoak, azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitakoa bete beharko dutenak.
- ii. Energia berriztagarrien erkidegoak eta herritarren energia-erkidegoak, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabileraren sustapenari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 Zuzentarauaren arabera, eta, hurrenez hurren, 2012/27/EB Zuzentaria aldatzen duen eta elektrizitatearen barne-merkatutarako arau erkideei buruzko 2019ko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 Zuzentarauaren arabera, baita energiaren alorrean eta susperraldi ekonomikorako beste esparru batzuetarako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua arabera ere.

Pertsona onuradun hauek merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten dutenak edo egiten ez dutenak izan daitezke. Hala ere, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik egiten ez dutela zehazteko, baldintza hau bete beharko dute: bazkide edo kide guztiak jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoak izango dira, eta/edo jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak araututako egoitza-jabeen erkidegoak.

- d) Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerrak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeak buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera. Beren xede sozialean programa honetan aurreikusitakoak bezalako jarduketak egitea aurreikusten bada: toki-erakunde horiekin lotutako edo haien menpeko erakunde publikoak, toki-erakundeek kapital sozialean duten zuzeneko zein zeharkako partaidetza % 50 baino gehiagokoa den udal-enpresa publikoak, fundazio-patronoa toki-erakunde bat

den edo patronatua nagusiki toki-erakundeko eta partzuergoetako ordezkariak osatuta dagoen fundazioak eta nagusiki toki-kapital publikoko partaidetza duten edo toki-erakunde batek leku nagusi bat daukan beste edozein erakunde instrumental.

- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Foru Aldundiak, eta, beren kapital sozialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ehuneko 50etik gorako zuzeneko zein zeharkako partaidetza edo harekiko mendeko posizioa duten entitate, erakunde publiko, fundazio eta sozietate guztiak.
- f) Estatuko Administrazio Orokorraren menpeko portu-agintaritzak, EAEn baldin badaude.

## 2.2. Ezin izango dira laguntzen onuradun izan:

- (i) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduko (aurrerantzean "DAO") 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, laguntzaren eskatzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharririk ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharririk izana, egiaztatzen duena, 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz.

- (ii) DLOaren 13.2 eta 13.3 artikuluetan eta 20/2023 Legearen 13.1, 13.2, 13.3 eta 13.4 aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

Zirkunstantzia hauek betetzen direla kreditatzeko eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, 20/2023 Legearen 13.6tik 13.9ra artikuluan eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudiko (aurrerantzean «DLO») 22 bis eta 23. artikuluetan. Testuinguru horretan, aurrez aipatutako bi arauak halakorik ahalbidetzen dutenean, aurreko paragrafoan adierazitako artikuluetan deskribatutako zirkunstantzietan ez daudela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahalko dute pertsona eskatzaileek.

Horri dagokionez, zerga-arloko Administrazioan, Gizarte Segurantzaren Administrazioan edota gaituta dagoen eta zirkunstantzia horiek betetzen direla egiaztatzeko prozedura tramitatzen den bitartean beharrezkoa den Administrazioen arteko beste edozein elkarreragingarritasun-zerbitzutan kontsultatuko du zuzenean informazioa EEEK. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- (iii) Horrez gain, eta pertsona onuradunak jarduera ekonomikoa garatzen baldin badu:
  - a) DLOaren 13.3bis artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.5 artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.
  - b) EBk ezarritako zigorren eraginpean dauden enpresak, besteak beste, honako hauek:
    - Zigor horiek agintzen dituzten egintza juridikoetan espezifikoki izendatutako pertsona, entitate edo erakundeei dagozkien zigorrak,
    - EBk hartutako zigorren xede diren pertsona, entitate edo erakundeen kontrolpean dauden edo horien jabetzakoak diren enpresei dagozkien zigorrak, edo,
    - EBk hartutako zigorren eraginpeko industrietako enpresa aktiboei dagozkien zigorrak, laguntzak dagozkien zigorren helburuen kalterako diren neurrian.
  - c) 651/2014 Erregelamenduen 1. artikuluan 2. apartatutik 5. apartaturaino identifikatutako sektoreetako enpresak edo jarduerak.
  - d) krisi-egoeran dauden enpresak, horretarako 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendurako eta berregituraketarako laguntzei

buruzko Erkidegoko zuzentarauetan (Batzordearen 2014/C 249/1 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa) egiten den definizioaren arabera.

- e) aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- f) herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat den enpresak.
- g) ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean erori direnak.

2.3. Laguntzen onuradunek jasotzen duten laguntzaren zenbateko osoa dagozkion jarduketa subentzionagarriak ordaintzera bideratuko dute.

### 3. Aurrekontu-zuzkidura eta eskaerak aurkezteko epea

3.1 Programa honetara bideratutako zuzkidura ekonomikoa laurogei milioi eurokoa (80.000.000 €) da, EEEren aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituaren arabera, eta oinarri hauetan aurreikusitako pizgarri-lerro bakoitzerako zenbateko hauen arabera banatuta:

- Energia-iturri berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioak egiteko inbertsioak: 60.000.000 €
- Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioak: 20.000.000 €

Pizgarri-lerroetako bakoitzaren aurrekontua % 20 handitu ahal izango da, salbuespen gisa, eskariaren eta dirulaguntzako jarduketaren garapenaren arabera, baldin eta helburu horretarako aurrekontu-eskuragarritasunik baldin badago, eta betiere haien indarraldi-epea ez bada iraungi.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, pizgarri-lerroan geratzen den funts-saldoa konpentsatu ahal izango da, dauden eskaera gehienak bete ahal izateko.

3.2 Laguntza-programa honetarako eskaerak aurkezteko epea programa argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da, 8:00etan, eta Laguntza-programan horretarako bideratutako aurrekontua agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aurrekontu eskuragarriarik egon zein ez, laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2026ko irailaren 30ean amaituko da, deialdian aurrekontu eskuragarriarik balego ere. Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko.

Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da, bai orokorrean edo Azpiprogrametakoren batean, EEEko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpen bidez, EHAAren zein EEEren Interneteko helbidean: [www.eve.eus](http://www.eve.eus).

3.3. Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean “**39/2015 Legea**”) 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

3.4 Jada aurkeztuta dauden eskaerak –ongi egindakoak eta osoak izanik eta tramitazio-fasean egonik– esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortu delako ezin badira erantzun, ezetsi egingo dira arrazoi hori dela-eta, EEEko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

#### **4. Jarduketa subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa**

- 4.1. Jarraian zerrendatzen direnak izango dira jarduketa subentzionagarriak, eta, EAEn egikarituta egoteaz gain, I. ERANSKINEAN bakoitzerako ezarritako betekizunak bete beharko dituzte:
- Autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioak energia berriztagarriko iturriekin egitea.
  - Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioak.
- 4.2. Eskaerak onartzeko hautagarritasun-aldiaren ondorioetarako, beharrezkoa izango da behin betiko betearazte-konpromiso oro (laguntzaren xede diren instalazioak gauzatzeko onartutako aurrekontuak, eskaerak, kontratuak, fakturak eta ordainagiriak) laguntza-eskaeraren ondoren egina izatea.
- 4.3. Oinarri hauen I. ERANSKINEAN dago zehaztuta kostu subentzionagarria eta onuradunek jaso beharreko laguntzen zenbatekoa, pizgarri-lerro eta jarduera subentzionagarrien tipologia bakoitzerako.
- 4.4. Energia elektrikoa sortzeko instalazioen jarduketetan, onuradunek adierazi beharko dute laguntzaren xede den autokontsumo-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren urteko batura instalazio horrek sortutako energiaren % 80 edo gehiago izatea aurreikusten dutela, II. ERANSKINEAN ezarritakoaren arabera.
- 4.5. Laguntzaren xede den edozein jarduketetarako, edozein motatako kontsumitzaile orok instalazio horri lotutako kontsumoa EAEn izan beharko du.

#### **5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak**

##### **5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken hartzailearen arabera**

4. oinarrian eta I. ERANSKINEAN aipatutakoa betez.

##### **5.2. Bateragarritasun-erregimena beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin**

5.2.1. 651/2014 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren ondorioetarako enpresatzat jotzen diren onuradunek jasotzen dituzten laguntzak bateragarriak izango dira proiektu edo jarduketa bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, laguntza-neurri horiek kostu subentzionagarri desberdinekin lotuta badaude edo laguntza-neurriak guztiz edo zatiz kostu subentzionagarri berdinekin bat datozenean eta haien metaketak ez badu gainditzen aplikagarria den laguntza-intentsitatea edo laguntza kopuru handiena, Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. (41. artikulua. Inbertsiorako laguntzak iturri berriztagarrietatik eratorritako energia sustatzeko).

Gainerako onuradunentzat, jaso beharreko laguntzak betiere bateragarriak izango dira xede bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, osorik hartuta osatzen duten laguntza-ehunekoa %80 edo gutxiago bada, I. ERANSKINEKO B epigrafean identifikatutako kostu subentzionagarrien gainean aplikatu beharrekoa.

5.2.2. Edonola ere, gainfinantzazioa saihestearren eta DLOaren 19. artikulua aplikatuz, bai eta 20/2023 Legearen 16. artikulua ere, emandako laguntzen kopuruak ezin kasutan ezin izango du, isolaturik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

5.2.3. Beste erakunde batzuetatik datozen laguntzak EEEren aldetik dirulaguntza emateko ebazpenaren ondoren gauzaten badira, pertsona onuradunak EEEri jakinarazi beharko dio, eta laguntza multzoaren azterketatik ondorioztatzen bada aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa murriztu beharra, laguntza guztiz edo partzialki errebokatzeko dagokion ebazpenaren bitartez jakinaraziko da, eta dagokion ordainketaren aurretik.

##### **5.3. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin kontratatzea edo azpikontratatea**

- a) DLOaren 29. artikuluan eta DEOaren 68. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, pertsona onuradun bat azpikontratatzeko ari dela esaten da hirugarrenekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jardueraren egikaritze osoa edo partziala. Laguntzaren pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik at geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketaren hirugarrenen azpikontratazio edo kontrataziorako, aipatutako DLOaren 29. artikulua, DEOaren 68. artikulua eta 20/2023 Legearen 31. artikulua horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

- b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan eta 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 €, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 €, BEZik gabe, obretarako), laguntzaren pertsona onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkaturan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

## **6. Tramitatzeko kudeaketa eta prozedura**

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera (aurrerantzean "91/2023 Dekretua"), laguntzen programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako gestioak) baliabide elektronikokoak erabiliz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikokoaren egoitza elektronikokoaren «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/micarpeta>) eta Eusko Jaurlaritzaren Tramitagune tramitazio elektronikoko aplikazioa erabiliz, euskadi.eus webgunean eta EEEren web-orrian ([www.eve.eus](http://www.eve.eus)) erabilgarri dagoena. Hori guztia, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa batean, tramitaziorako jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak daude eskuragarri, eta horren bitartez, eskaera-formularioan sartzen da; hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus> eta [www.eve.eus](http://www.eve.eus).

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkezten bada, sinadura elektronikoko aitortu bat eduki beharko du, 91/2023 Dekretuaren 71. artikuluan xedatutakoaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan onartutako identifikazioko eta sinadura elektronikoko bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>.

Kanal elektronikoko bidez, eskaeraren ondorengo tramiteak, jakinarazpen eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun baliaduneko epea emango zaio pertsona interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikuluan arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, pertsona interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoa aurkezteko.

## **7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia**

Eskaera bakar bat aurkeztu beharko da laguntza jaso nahi duen instalazio bakoitzeko.

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, 6. oinarrian aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, 3. oinarrian adierazten den epearen barruan.

Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez 8.1 oinarriaren lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte.

Laguntza-eskaerekin batera, oinarri hauen II. ERANSKINEAN adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, diruz lagundu nahi den jarduketaren arabera. Hala ere, EEEK laguntza-eskaera behar bezala aztertze beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

## **8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea**

**8.1.** Laguntza-eskaeren ebazpenak ondoz ondoko lehiako prozedura baten bidez emango dira, egoera edo jarduketa subentzionaigarria badela eta eskatutako beste betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Horrenbestez, aurkeztu diren hurrenkera zehatzaren arabera aztertuko eta tramitatuko dira eskaerak.

**8.2.** Laguntzen Arloa izango da, EEEKo Berrikuntza eta Garapen Zuzendaritzaren barruan kokatua, espedienteen antolamendu eta kudeaketarako organo eskuduna.

Bere aldetik, EEEKo Zuzendaritza Nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkeztu den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igarotakoan ez bada esanbidezko ebazpenik eman, pertsona eskatzaileek ezetsizat hartu ahal izango dute beren eskaera, 20/2023 Legearen 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 39/2015 Legearen 25. artikuluan jasotakoaren ondorioetako, baina, hala eta guztiz ere, EEEK egindako eskaeraren esanbidezko ebazpena eman behar du. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>.

Ebazpenean honako hauek adieraziko dira esanbidez, 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan adierazitako edukiaz gain: (i) laguntzaren xede den jarduketa, (ii) laguntzaren zenbatekoa (kopuru gordin gisa, laguntzaren pertsona onuradunaren izaeragatik egokiak diren zerga-betebeharrak alde batera utzi gabe), (iii) interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak eta (iv), hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

**8.3.** Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, pertsona eskatzaileak hautazko birjartze-errekurtsoa jarri diezaioke EEE Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza Nagusiari hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, “**29/1998 Legea**”).

**8.4.** Azkenik, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, “**19/2013 Legea**”), DEOaren 30. artikulua eta 20/2023 Legearen 15. artikulua dioenarekin bat etorritik, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta Euskadiko Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean

(KKB Kontrol Ekonomikoko Bulegoari helaraztearen bidez) argitaratuko ditu programa honen emango diren dirulaguntzak, eta legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

- 8.5. 20/2023 Legearen 34. artikulua aplikatuz, EEEK deialdi honetan aurreikusitako laguntzak pertsona onuradunei ordaintzea bertan behera uztea erabaki ahal izango du, edozein itzulketa-prozeduraren amaiera baldintzapean geratuko delarik, zeina, EAEko Administrazio Orokorrak, bere Erakunde Autonomoek eta sektore publikoko entitateek emandako izaera bereko laguntze edo dirulaguntzen esparruan hasita egonik, oraindik ere izapidetze-aldian dagoen, etendura horrek ezein kasutan ez duelarik gaitutuko diru-itzulketa espedientearen hasierarako proposamenak edo ebazpenak finkatzen duten diru kopurua, berandutze-intereseekin.

## 9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea

- 9.1. Onuradunek laguntzaren xede den jarduketa egin, ordaindu eta abonatu izana EEEren aurrean justifikatu beharko dute, gehienez ere hamabi (12) hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, eta, gehienez ere, 2027ko abenduaren 30ean, elektronikoki, 6. oinarrian adierazitako aplikazio informatikoaren bidez.
- 9.2. Laguntzen pertsona onuradunak oinarri hauen II. ERANSKINEAN aipatzen diren eta aplikagarriak diren agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, eta, zehazki, pertsona onuradun-motaren eta egin den jarduketaren (pizgarri-lerroak) arabera adierazita daudenak.
- 9.3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak bete direla jasotzen duten ziurtagiriak egiaztatuta daudela automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du EEEK.

Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikuluen 2. paragrafoan xedatutakoari jarraituz.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

Kasu horretan ez da inolako ordainketarik egingo pertsona onuraduna ez badago egunean zerga-alorrean edo Gizarte Segurantzaren aurrean dauzkan betebeharrei dagokienez, edota zorduna bada, itzulketa-betebeharra dakarren ebazpen baten ondorioz.

- 9.4. Laguntzaren pertsona onuradunak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, behin jarduketa erabat bukatutakoan, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioa osatugabe badago, akatsak baditu edo postaz nahiz aurrez aurre aurkeztu bada, laguntzaren pertsona onuradunari, zuzenketa-eskaerako dagokion idazkiaren bidez, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko, laguntzaren pertsona onuradunak zuzenketa-jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta (39/2015 Legearen 68. artikulua).
- 9.5. EEEK ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko eta jarduketa subentzionaigarria egikaritzeko epea, eta justifikazioa ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebokatzea eta DLOan ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.
- 9.6. Eskatutako dokumentazioa jasotakoan aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioari balorazio positiboa ematen bazaio, EEEK laguntza ordainduko du.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebokazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera.

Aitzitik, pertsona onuradunak 9. oinarri honetan edo oinarri hauetan edo/eta dirulaguntzaren arloan ezarritako araudian aurreikusitako terminoetan adierazitako justifikazio-betebeharra

beteko ez balu, EEEK laguntza guztiz edo zatiz errebokatzeko espediente bat hasiko du, 12. oinarrian azaldutako mailakatze-irizpideei jarraituz eta, betiere, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritz.

Laguntzaren bi errebokazio-kasuan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da.

- 9.7. Laguntzaren pertsona onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEK dirulaguntza, jarduketa subentzionagarria amaitu ondoren, eta lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen, baita edozein itzultze-prozedura amaitu dela, eta laguntzaren ordainketa jaso ahal izateko dirulaguntza-araudian ezarritako gainerako baldintza eta betebeharrak bete direla jasotzen duen dokumentazioa egiaztatzeko aukera ere emango duen dokumentazioa EEEri aldeztuta.
- 9.8. Ezin izango dute laguntzaren ordainketa jaso EAEko Administrazioako eta haren sektore publikoko edozein entitatek eta/edo EEEK emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kopuruak itzultzeko betebeharrak betetzeke dauzkaten pertsona onuradunek. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Pertsona onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela onartzeko, hauxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako EAEko sektore publikoari dagokion edozein entitaterekin edo EEEekin zorrik ez izatea, epealdi betearazlean, dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo pertsona onuradunei zein erakunde laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.

Era berean, pertsona onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (DEOaren 21. artikulua).

- 9.9. EEEK eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala justifikatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria).

## **10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea**

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEE Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahalko ditu, egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEEK beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Berrikuspenak estatistikoki esanguratsua den espediente kopuru bat bilduko du, laguntza kopuru handiena daukaten eragiketei emanez lehenetasuna, eta aniztasuna barne hartuz eremu geografikoari eta onuradunen tipologiari dagokienez. Aukeratutako laginak, emandako laguntzen zenbateko osoaren % 25 bilduko du gutxienez, eta espedienteen kopuruan % 5eko minimoa.

Dirulaguntza jasotako jarduketaren in situ egiaztatzea egingo zaien pertsona onuradunei aldeztuta aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEEren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEK pertsona onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio laguntzaren pertsona onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEK dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebokatzeko espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEK dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatzeko espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo

kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

## **11. Laguntzen onuradunen betebeharrak**

Deialdi honetan parte hatzen duten pertsona onuradunek, nolana ere, betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

- a. DLOaren 14. eta 46. artikuluetan eta 20/2023 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoak.
- b. Dirulaguntza eman zaion helburu jakinerako erabiltzea.
- c. KEB - Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, EEEri eta baita tokiko, estatuko edo Europar Batasuneko beste edozein kontrol-erakunderi (adierazgarri gisa, eta ez modu mugatzailean, Europar Batasuna, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoa (OLAF), Europako Kontu Epaitegia eta Europako Fiskaltza) eta gai honetan eskumena duten erakundeei ematea beren funtzioak gauzatzean laguntza-deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz eskatzen dioten informazio guztia.
- d. EEEri, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
- e. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Modu horretan, onuradunak onartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua guztiz bat datorrela indarreko araudi aplikagarriarekin, bai teknikoarekin, bai hirigintzakoarekin, bai beste edozein izaerarekin.
- f. Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatze, kontrolatze eta ikuskatzeko dagozkien jarduketan xede izan daitezkeela kontuan hartuta, eta gutxienez hamar (10) urtean zehar laguntzaren emakidaren datatik zenbatzen hasita, 651/2014 Erregelamenduak xedatzen duenaren arabera.
- g. Kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko dute pertsona onuradunek laguntzako jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- h. 20/2023 Legearen 30.4 artikulua aplikatuz, jarduketa subentzionarioaren ondasun inbentarioak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzea bada, subentzionarioaren ondasunen titularra izan beharko du pertsona onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez bost (5) urtez laguntza eman zitzaion egunaz geroztik eta bi (2) urte gainerako ondasunentzat, bi kasuetan ere epeak laguntza ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, eskrituran jaso beharko da zirkunstantzia hori, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta elementu horiek nahitaez inskribatu beharko dira dagokion erregistro publikoan.

Beteberrak ez da bete gabekotzat hartuko 20/2023 Legearen 30.5 artikuluan deskribatutako zirkunstantzietako bat gertatzen denean.

- i. Pertsona onuradunak konpromisoa hartzen du, EEEk eskatuta, jarduketa subentzionarioaren emaitzen bilakaeraren berri emateko eta haien hedatzea ahalbidetzeko, EEEk laguntza ordaindu eta hamar (10) urteko epean.
- j. Dirulaguntzaren pertsona onuraduna enpresa bat denean, bere merkataritza-eragiketetan egin dituen gastu subentzionarioen aplikagarria zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berantortasunaren aurka borrokatze neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.
- k. 20/2023 Legearen V. titulua aplikatuz eta betiere jarduketa subentzionarioaren edo pertsona onuradunaren izaera dela-eta enpresa-deslokalizazio baten kasuan bagaude, pertsona

onuradunak nahitaez bete beharko ditu adierazitako 20/2023 Lege horrek 48.-51. artikuluetan deskribatutako betebeharrak eta ondorioak.

- l. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEERI, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioen berri ere.
- m. Informatzeko eta komunikatzeko egiten diren neurri eta ekintza guztietan, pertsona onuradunak EEERen laguntzaren onuraduna dela aitortu behar du. Horretarako:
  - Paperean, webgune batean, app batean edo ikus-entzunezko euskarri batean egiten den ekintza orotan berariaz aipatuko da proiektuak dirulaguntza jaso duela laguntza-programaren barruan. EEERen logotipoa txertatuko da euskarri horietan. EEERen logotipoa EEERen webgunean egongo da eskuragarri, formatu bektorialean eta azken bertsio eguneratuenean.
  - EEERen eskura jarriko da diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa, haren emaitzak hedatzeko asmoz, elkarrekin adostu ondoren.

## 12. Ez-betetzeak eta itzulketak

Deialdi honetan ezarritako eskakizunak eta gainerako arau aplikagarriak edo, kasuan-kasuan, dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko zaio EEERI, berandutze-interesekin batera, eta hori guztia 20/2023 Legearen III. tituluarekiko xedatutakoari jarraikiz, dagozkion lege-egintza eta zigorrak alde batera utzi gabe.

Pertsona onuradunak jasotako kopuru guztiak edo batzuk itzuli beharko ditu oinarri hauetan hori ezartzen den kasuetan, eta 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritakoetan, eta, dirulaguntzen alorrari dagokionez, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagokion berandutze-interesa eskatuko zaio. Eta helburua erabat betetzera modu esanguratsuan hurbildu delako dirulaguntza partzialki itzuli behar denean, eta pertsona onuradunak oinarri hauei jarraikiz bere konpromisoak eta betebeharrak betetzeko jarduketa nabaria egiaztatzen badu, programa honetan aurreikusitako xede eta helburuen betetze-maila hartuko da kontuan, betiere proportzionaltasun-irizpideen pean.

EEEko Zuzendaritza Nagusiak du errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularaztekoa.

## 13. Eskatzaileei informazioa emateko klausula

Datuen babesari buruzko informazioa (Datuen babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) telefonoa: 94 403 56 00 Harremana DPO: <a href="mailto:dpd@eve.eus">dpd@eve.eus</a>
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den harremanaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahal izango dira datuak.
Tratamenduaren legitimazioa eta kontserbazioa	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeke epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.

Datuen babesari buruzko informazioa (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Lagapenen hartzaileak	Kontrol-arloko eta 20/2023 Legearen 15.9 artikuluan aurreikusitako alorrean eta kasuetan eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak.
Pertsona interesdunen eskubideak	Pertsona interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEERI idazki bat bidaliz, "datuak babesteko eskubideak egikaritzea" adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikaritu daitezkeen neurrian.
	Pertsona interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari erreklamatzeko eskubidea dute <a href="http://www.avpd.eus">www.avpd.eus</a>
<p>Pertsona onuradun orok konpromisoa hartzen du, bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEERI eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridikoa, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEERI datu pertsonak behar bezala lagatzeko.</p> <p>Ordezkapena gauzatzeko, pertsona ordezkaria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentziasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Hirugarrenei ere ez zaie jakinaraziko, ordezkatuaren esanbidezko baimena baldin bada go salbu. Konpromiso horiek mugagabeak dira, eta beraz, ordezkapena amaiturik ere jarraitzen dute indarrean. Pertsona ordezkariek segurtasun-arrakalen bat detektatzen badu EEERentzako datuen komunikazio-kanaletan, EEERI jakinarazi beharko dio berehala.</p>	

#### 14. Azken xedapenak

- 14.1. EEERen erabakiak izaera administratiboa du eta EEER kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
- 14.2. Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEER.
- 14.3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren onuradunaren aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEER eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren onuradunaren erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezin kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
- 14.4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17 38/2003 Lege Orokorrean bildutako oinarrizko manuak.
  - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
  - Abenduaren 21eko 20/2023 Legea, dirulaguntzen araubidea erregulatzeko.
  - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
  - Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez laguntza kategoriatan jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.
  - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
  - 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

- 2023ko otsailaren 13ko agindua, Ogasuneko sailburuarena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.
- Aplikagarri izan litezkeen tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta/edo Europako gainerako araudi guztiak.

I. ERANSKINA - Jarduketa subentzionagarriak, kostu subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa.

II. ERANSKINA - Eskaera-fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa eta justifikazioa.

## I. ERANSKINA - JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIAK, KOSTU SUBENTZIONAGARRIAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

### A. Jarduketa subentzionagarriak

#### A.1. Iturri berriztagarriekin autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioetarako jarduketa subentzionagarriak

Diruz lagundu ahal izango da iturri berriztagarriekin (fotovoltaikoak eta eolikoak) autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko Euskadin kokatutako instalazioetan egindako inbertsioa. Ildo horretan, laguntzaren xede den energia sortzeko instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren urteko baturak instalazioak sortutako urteko energiaren % 80 edo handiagoa izan beharko du, instalazio isolatuetan izan ezik.

Programa honen xedeetarako, honako instalazio-tipologia hauek egongo dira barne hartuta:

- Energia elektrikoa sortzeko baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarrita dauden autokontsumorako instalazioak.
- 244/2019 Errege Dekretuan definituta dauden isolatutako instalazioak.
- Energia elektriko berriztagarria sortzeko instalazioak, *244/2019 Errege Dekretuak, apirilaren 5ekoak, energia elektrikoa sortzeko baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituenak, autokontsumorako jotzen ez dituen arren*, sorkuntzari lotutako kontsumitzaileak identifikatuta dituztenak, eta kontsumitzaileen eta sortze-instalazioaren artean jabetza-lotura dutenak. Kontsumitzaileen jabetza-lotura horrek ehuneko 50etik gorako partaidetza zuzena edo zeharkakoa lortu behar du. Hala ere, aurretik zehaztutako gutxieneko ehunekoaren betekizuna ez zaie aplikatuko 2.1.c.2 oinarrian ezarritako onuradun motarekin bat datozen laguntza-eskatzaileei.

Era berean, jarduketa subentzionagarria izango da sortutako energiarentzako biltegitratze-baterietan egindako inbertsioa. Biltegitratze-instalazioak sorkuntza-instalazioaren zati izan beharko du, bateria instalazioaren barne-sarean kokatu beharko delarik.

Biltegitratze-instalaziorako gehieneko ratio subentzionagarria 5kWh/kW izango da. Baimenduta dago adierazitako gaitasun handiagoko baterien instalazioa, ratio hori gainditzen duen biltegitratze-zatirako dirulaguntzarik gabe.

Biltegitratzeko instalazioak gutxienez urteko energiaren % 75 xurgatu beharko du zuzenean konektatutako energia elektriko berriztagarria sortzeko instalaziotik, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 41.1.bis artikulua araberaren arabera (2023ko ekainaren 23ko Batzordearen 2023/1315 (EB) Erregelamenduak aldatutakoa).

Programa honek ez die dirulaguntzarik eskaintzen berun-azidoko bateriak dituzten biltegitratze-instalazioei.

Dirulaguntza jasotzen duen instalazioak sortutako energia elektrikoaren monitorizazio-sistema bat eduki beharko dute instalazioek, salbu eta isolatuta badaude. Sistema horren funtzionalitateak honako hauek izango dira:

- Sistema horrek, gutxienez, instalazio berriztagarriak egunean, hilean edo urtean produktutako energia erakutsi beharko du, eta aldi horietarako dagokion kontsumo energetikoa. Sorkuntza kolektiboko instalazioen kasuan, sortutako energia bakarrik erakutsi beharko da.
- Aurrekoaz gainera, sistemak datu gehigarriak erakusteko aukera ere izango du, hala nola saihestutako CO2 emisioak eta instalazioaren jabearentzat sortutako aurrezki ekonomikoa.

Eta edozein jarduketarako, informazio hori bera gailu mugikorren edo web aplikazioen bidez eskuratzeko aukera bermatuko da.

## A.2. Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioetan diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz laguntzeko modukotzat hartuko da EAEko energia berriztagarrien instalazioetan egindako inbertsioa, klimatizazioko bero-ponpak eta/edo ur bero sanitarioa (pertsonek ongizate termikorako) badituzte, honako teknologia hauekin: aerotermikoa, zundaketa bertikaldun geotermikoa eta hidrottermikoa.

Edozein kasutan, erabilera guztiek uraren erabileraz baliatzen diren sistema hidronikoetan oinarrituta egon beharko dute.

Bero-ponpa bidezko instalazio aerotermiko, geotermiko eta hidrottermikoek **2,5etik gorako** urtaroko batezbesteko errendimendua (SPF) izan beharko dute.

Egindako instalazioek, bidezko bada, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako instalazio termikoen erregelamenduan (EITE) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita aplikatzekoa zaien beste edozein araudi ere. Elektrikoki eragindako bero-ponpek 2,5etik gorako SPF bat izan beharko dute. Bero-ponpek 2016ko azaroaren 30eko Batzordearen 2016/2281 Erregelamenduan ezarritako ekodiseinu-errekerimenduak bete beharko dituzte, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/EB Zuzentarauak aplikatzen dituenak. Zuzentarau horren arabera esparru bat ezartzen da energiarekin zerikusia duten produktuei aplikatzekoak diren diseinu ekologikoko betekizunak ezartzeko, airea berotzeko produktuei, hozte-prozesuei, tenperatura altuko prozesuak hozteko makinei eta bentilokontsektoreei aplikatzekoak diren diseinu ekologikoko betekizunei dagokienez.

Akuiferoetan eragiten duten geotermia- eta hidrottermia-jarduketetarako, urriaren 23ko 2000/60/EB Zuzentaraua betetzen dela bermatuko da, ur-politiken eremuan jarduteko Europar Batasunaren esparru bat ezartzen duena akuiferoei kalte esanguratsurik eragiten ez zaiela ziurtatzeko, uraren kalitatea babestu eta estres hidrikoa saihestearren.

Instalazio geotermiko guztiek zundaketak egitea barne hartu beharko dute lurrazpiko energia termikoaren trukearako. Zundaketak sakontasun egoki batean egin ebaizko dira sistemaren egonkortasun termikoa bermatzeko. Zundaketen sakontasunak eta ezaugarriak aplikagarria den araudi teknikoa eta indarreko ingurumen-araudia bete beharko dute, truke energetiko eraginkor eta segurua bermatuz.

Eraikuntza berriko eraikinetan garatutako jarduketek, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 legean identifikatuak, betebeharrak osagarri gisa izango dute energia berriztagarrien erabilera eskusiboa. Bere osotasunean energia berriztagarriko iturriak erabiltzen dituzten energia-sorkuntzako instalazioak eta sistemak bakarrik finantzatu dira, berriztagarriak ez diren beste iturrietan inolako hibridazio motarik gabeak.

Honako hauek ez dira laguntza-programa honen xede izango:

- Eskatutako gutxieneko errendimenduetara iristen ez diren edo errendimenduak ziurtatzen ez dituzten bero-ponpak.
- Hezetasuna kentzeko unitate gisa funtzionatzeko zeregina duten bero-ponpak.
- Berriztagarria ez den energiako iturriekin hibridatzen diren eraikuntza berriko eraikinetan egindako jarduketak.
- Hotz industrialak sortzeko ekipoak, halakotzat ulerturik, elikagaiak edo bestelako produktuak biltegitatu edo izozteko hozkailuei eta hozte-ganberei, itsasoko, lurreko edo aireko garraioan kokatutako hozte-sistemei, zerbitzari-gelei eta data centerrei hotz ematen dieten hozte-sistemak.
- Lurrazpiarekin elkartruke energetikoa atzemateko zundaketa egin gabeko ekipo geotermikoetako jarduketak.

## B. Kostu subentzionagarriak

### B.1. Iturri berriztagarriak erabiliz autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioetarako kostu subentzionagarriak

Jarraian zerrendatzen direnak hartzen dira kostu subentzionaerantz:

- a) Laguntzaren xede den jarduketa tipologiekin lotutako ekipo eta materialetan inbertitzea, hala badagokio, biltegitratze-sistemei dagokiena barne.
- b) Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obrak eta/edo instalazioak egikaritzeko kostuak.
- c) Ekipamendu elektromekanikoak, kontrolekoak eta osagarriak, laguntzaren xede den jarduketarekin lotuta daudenean.
- d) Goi, Erdi eta Behe Tentsioko sistema elektriko orokorra, transformadoreak, ebakuazio-linea eta garraio- edo banaketa-sare elektrikoarekiko lotunerainoko sistema eta azpiegitura elektriko gehigarriak, laguntzaren xede den jarduketa tipologiaren arabera beharrezkoak direnean. Bidezko bada, dagozkion babesak eta ekipamenduak barnean hartuko dira, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoari (BTEE) eta haren Jarraibide tekniko osagarriei edo Goi Tentsioko Instalazio Elektrikoen Erregelamenduaren (GTIE) eta haren Jarraibide tekniko osagarriei jarraikiz.
- e) Laguntzaren xede den proiektuak hornitzen dituen instalazio kontsumitzaileen energia elektrikoa sortzeko, biltegitratzeko eta eskatzeko monitorizazio-sistemak, kudeaketa eta ekoizpena optimizatzen laguntzeko. Ekipo horiek laguntzaren pertsona onuradunaren jabetzakoak izan beharko dute, eta laguntzaren xede den jarduketari lotuko zaizkio.
- f) Obra zibilak, laguntzaren xede diren jarduketekin zerikusia dutenean, eta proiektua behar bezala egikaritzeko beharrezkoak diren obrak, esaterako, estalkia indartzeko edo, hala badagokio, sorkuntza-instalazioak okupatutako estalkiaren zati proportzionala ordeztzeko lanak. Gainera, honako partida hauek obra zibil subentzionaerantz joko dira: proiekturako beharrezkoak diren eraikuntzak; sorkuntza-instalazioarekin edo energia elektrikoa integratzeko eta eskaria kudeatzeko sistemekin lotutako hondeaketak, zangak eta kanalizazio eta hodiak; igeltserotza-laguntzak; beharrezkoak diren instalazio osagarriak; instalazioaren barne-zortasuneko bideak; instalaziorako sarbideen egokitzapena; kontrol-eraikinak; muntaketa-plataformak; aldi baterako instalazioak; zaharberritze-lanak; eta obren ondoko ingurumen-neurri zuzentzaileak. Kostu hautagarritzat hartu ahal izateko, obrek honako baldintza hau bete beharko dute: sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinen gutxienez % 70 (LER 17 05 04 kodea duten hondakinak alde batera utzita), beste material batzuk balorizatzen, birziklatzen edo berrerabiltzen prestatzea, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiliz gauzatutako betetze-eragiketak barne. Ildo beretik, eraipena dakarten proiektu finantzatuetan, eraipen selektiboaren praktika hartuko da barne.
- g) Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako proiektu edo memoria teknikoaren idazkuntzaren kostuak.
- h) Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.
- i) Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obraren eta muntaketaren Segurtasuna eta Osasuna koordinatzea.
- j) Amiantoa kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan.
- k) Diruz lagundutako jardueretatik eratorritako hondakinen kudeaketari lotutako kostuak, baldin eta beharrezkoak badira eta proiektua gauzatzearekin zuzenean lotuta badaude.
- l) Eguzki-instalazio fotovoltaikoa ibilgailuak aparkatzeko soilik erabiltzen diren markesinen gainean egonez gero, markesinen egituraren kostua.
- m) Beharrezko gisa egokiro justifikatzen diren beste partida batzuk (lagungarriak izan zein ez).

Honako kontzeptu hauetan bildutako gastuak ez dira subentzionaerantz hartuko.

- a) Gastu propioak, langileei lotutako gastuak, funtzionamendukoak edo gastu orokorrak izan.
- b) Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak, baldin eta Eraikuntzaren Kode Teknikoak (aurrerantzean "EKT"), 1. puntuan (*HE5 dokumentuaren aplikazio-eremua*), energia hori gauzatzea ezartzen badu, energia aurrezteko oinarriko eskakizunak edo eraikuntzaren

beste edozein kalitate-helburu betetzeko. Horrelako instalazioak zabaltzeak laguntza jaso ahal izango du, EKTk ezarritakoaren gainetik.

- c) Ingurumen-inpaktuko azterlanak eta proiektu teknikoak ikus-onesteko kostuak.
- d) Proiektua garatzeko eskatzaileak ordaindu beharreko gainerako sustapen-gastu guztiak.
- e) Administrazio-baimenei, lizentziei, baimenei, abalen eta/edo fidantzei, isunei, tasei edo tributuei dagozkien zenbatekoak.
- f) Aurreko atalean bilduta ez dauden gestio, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako gainerako gastu guztiak, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak direnak.
- g) Inbertsio-proiekturako zein ebakuazio-azpiegituretarako erabilitako lurak erostearen edo alokatzearen kostua.
- h) Eskatzaileak harpidetutako aseguruak.
- i) Zaintza eta segurtasuna, obra egikaritu bitartean eta martxan jarri arte.
- j) Energiaren ebakuazioa bideragarri egiteko eskusiboez bestelako linea elektrikoan egokitzapenak, birmoldaketak edo egikaritzapenak. Hortaz, subentzionaerantz hartuko dira, soil-soilik, sorkuntza-instalazioa —edo energia berriztagarriak sarean integratzeko sistemak— instalazio horien lotunearekin eta garraio- edo banaketa-linearekin lotzeko behar diren lineak, sistema elektrikoaren neurketa-puntuen Erregelamendu bateratua onartzen duen abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- k) Errepide publikoetako eta instalaziorainoko bideetako sarbideak egokitzea.
- l) Finantza-kostuak

Azkenik, tributuoak kostu subentzionaerantz hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

## **B.2. Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioetan diruz lagundu daitezkeen kostuak**

Zalantzarik gabe subentzionaerantz jardueraren izaerari erantzuten diotenak, jarduketa subentzionaerantz egiteko behar-beharrezkoak direnak eta programak lortu nahi dituen helburuak betetzeko ezinbestekoak direnak hartzen dira gastu subentzionaerantz. Espezifikoki:

- a) Laguntzaren xede den jarduketa tipologiekin lotutako ekipo eta materialetan inbertitzea, hala badagokio, metaketa/biltegitratze-sistemei dagokiena barne.
- b) Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obrak eta/edo instalazioak egikaritzeko kostuak.
- c) Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta osagarriak, laguntzaren xede den jarduketarekin lotuta daudenean.
- d) Laguntzaren xede den proiektuak sortzen eta biltegitratzen duena kudeatzeko, aktiboki kontrolatzeko eta monitorizatzeko sistemak, kudeaketa eta ekoizpena optimizatzen laguntzeko. Ekipo horiek laguntzaren pertsona onuradunaren jabetzakoak izan beharko dute, eta laguntzaren xede den jarduketari lotuko zaizkio.
- e) Instalazio geotermikoetarako esplorazio-zundaketak eta Erantzun Termikoko Testen entseguak.
- f) Obra zibilak, laguntzaren xede diren jarduketekin zerikusia dutenean, eta proiektua behar bezala egikaritzeko beharrezkoak diren obrak, hala nola: sorkuntza-instalazioari lotutako hondeaketak, zangak, kanalizazioak eta tutueriak.
- g) Diruz lagundutako sorkuntza-instalazioari lotutako klimatizazioaren barne-banaketa, zirkuitu hidraulikoak eta bero-igorleak, hala nola zoru erradiatzailea, tenperatura baxuko erradiadoreak edo fan coilak.

- h) Kokalekuan dauden instalazioen desegitearen kostua.
- i) Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako proiektu edo memoria teknikoen idazkuntzaren kostuak.
- j) Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.
- k) Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obraren eta muntaketaren Segurtasuna eta Osasuna koordinatzea.
- l) Diruz lagundutako jardueretatik eratorritako hondakinen kudeaketari lotutako kostuak, baldin eta beharrezkoak badira eta proiektua gauzatzearekin zuzenean lotuta badaude.
- l) Jarduketa tipologia bakoitzaren espezifikoak izanik, beharrezko gisa ongi justifikatu diren beste partida batzuk, (lagungarriak izan edo ez), gastu ez-subentzionario gisa bildutakoez aparteak.

Ez dira kostu subentzionarioz hartuko:

- a) Gastu propioak, langileei lotutako gastuak, funtzionamendukoak edo gastu orokorrak izan.
- b) Ingurumen-inpaktuko azterlanak eta proiektu teknikoak ikus-onesteko kostuak.
- c) Proiektua garatzeko eskatzaileak ordaindu beharreko gainerako sustapen-gastu guztiak.
- d) Administrazio-baimenei, lizentziei, baimenei, abalen eta/edo fidantzei, isunei, tasei edo tributuei dagozkien zenbatekoak.
- e) Gestio, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako gainerako gastu guztiak, nahiz eta baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan.
- f) Inbertsio-proiekturako zein ebakuazio-azpiegituretarako erabilitako lurak erostearen edo alokatzearen kostua.
- h) Pertsona eskatzaileak harpidetutako aseguruak.
- i) Zaintza eta segurtasuna, obra egikaritu bitartean eta martxan jarri arte.
- k) Errepide publikoetako eta instalaziorainoko bideetako sarbideak egokitzea.
- m) Finantza-kostuak.

Azkenik, tributuak kostu subentzionarioz hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

### C. Laguntzaren zenbatekoa

#### C.1. Iturri berriztagarriak erabiliz autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioetarako laguntzaren zenbatekoa

Laguntza kalkulatzeko helburuarekin, sorkuntza-potentzia honela lortuko da: instalazio hori konfiguratzeko duten modulu fotovoltaikoen gehieneko potentzia unitarioak batuta (puntako potentzia gisa ezagutzen dena), kondizio estandarretan neurtuak dagokion UNE arauaren arabera.

##### C.1.1 Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduera ekonomikorik egiten ez duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua, C.1.3 atalean adierazitakoak izan ezik

Guztira emango den laguntza sortze-instalaziorako laguntzaren eta biltegitatze-instalaziorako laguntzaren batura izango da, hala badagokio.

Energia **sortzeko** instalaziorako laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere guztizko kostu subentzionarioz estaliko dute.

$$\text{Sorkuntzagatiko laguntza} = \text{Sorkuntza-modulua} \times \text{Ps}$$

Ps instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia erreal izanik, kilowattetan (kW). Kilowatt-puntatan (kWp), instalazio fotovoltaikoen kasuan.

Nolanahi ere, sorkuntzako laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren sorkuntzako kostu hautagarria, modu egokian justifikatua.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten sorkuntza-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Modulu indibiduala Laguntza (€/kW)	Modulu kolektiboa laguntza (€/kW)
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P \leq 10$ kW	600	710
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 10$ kW eta $P \leq 100$ kW	450	535
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 100$ kW eta $P \leq 1.000$ kW	350	420
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa $P > 1.000$ kW	300	355
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P \leq 20$ kW	2.900	3.350
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 20$ kW eta 500 kWra bitarte	1.950	2.250
Sorkuntzako instalazio eolikoa $P > 500$ kW	650	775

Modulu horiek handitu egingo dira amiantoa kentzen bada eguzki-energia fotovoltaikoa instalatzen den estalkitik, edo aparkalekuetarako estalki gisa balio duten markesina fotovoltaikoak instalatzen badira. Modulu gehigarri horiek kontuan hartzeko, beharrezkoa da gutxienez sorkuntza-potentzia osoaren % 80 amiantoa ezabatu den azaleraren gainean kokatua egotea, eta, markesinen kasuan, sorkuntza-potentzia osoaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzea.

Jarduketa osagarriak	Sorkuntza-modulu gehigarria (€/kW) (kasuen arabera)
Amiantoa kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan	$P \leq 10$ kW: 200 €/kW $10$ kW < $P \leq 100$ kW: 160 €/kW $100$ kW < $P \leq 1.000$ kW: 110 €/kW $P > 1.000$ kW: 100 €/kW
Aparkalekuetarako estalki gisa balio duten eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea	$P \leq 10$ kW: 400 €/kW $10$ kW < $P \leq 100$ kW: 350€/kW $100$ kW < $P \leq 1.000$ kW: 300€/kW $P > 1.000$ kW: 250€/kW

Energia **biltzeko** instalaziorako laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere guztizko kostu subentzionarioak estaliko dute.

$$\text{Biltegitratze-laguntza} = \text{Biltegitratze-modulua} \times \text{Kap}$$

Kap izanik: benetan instalatutako biltegitratzeko instalazioaren kapazitate izendatua, orduko kilowattetan (kWh).

Nolanahi ere, biltegitratzeko laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren biltegitratze-kostu hautagarria, modu egokian justifikatua.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten biltegitratze-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)
Biltegitratze-instalazioa Kap ≤ 10 kWh	490
Biltegitratze-instalazioa Kap > 10 kWh eta Kap ≤ 100 kWh	350
Biltegitratze-instalazioa Kap > 100 kWh eta Kap ≤ 5000 kWh	245
Biltegitratze-instalazioa Kap > 5.000 kWh	140

Subentzionatutako ratio maximoa 5 kWh/kW izango da. Baimenduta dago adierazitako gaitasun handiagoko biltegitratze-instalazioa, ratio hori gainditzen duen biltegitratze-zatirako dirulaguntzarik gabe. Instalazio fotovoltaikoen kasuan potentzia kilowattetan da (kWp).

Ratio honen kalkulurako potentzia subentzionagarria hartuko da kontuan.

#### C.1.2 Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Guztira emango den laguntza sortze-instalaziorako laguntzaren eta biltegitratze-instalaziorako laguntzaren batura izango da, hala badagokio.

Energia **sortzeko** instalaziorako laguntzak emateko, sorkuntza-kostu subentzionagarria jarduketa mota bakoitzerako ezarritako laguntza-ehunekoarekin biderkatuko da.

$$\text{Sorkuntzako laguntza} = \text{Kosatu subentzionagarriaren modulua} \times S_p$$

Ps instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia erreala izanik, kilowattetan (kW). Kilowatt-puntatan (kWp), instalazio fotovoltaikoen kasuan.

Gehieneko kostu subentzionagarri bat ezarri da sorkuntza-potentiaren arabera. Gehieneko kostu subentzionagarria eta kostu subentzionagarriaren gaineko laguntza-portzentajea definitzen duten moduluak honako hauek dira:

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Gehieneko kostu subentzionagarria (€/kW)	Laguntza enpresa handia (%)	Enpresa ertainetarako laguntza (%)	Enpresa txikietakoko laguntza (%)
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P ≤ 10 kW	1.188	% 25	% 30	% 45
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P > 10 kW eta P ≤ 100 kW	910	% 25	% 30	% 45
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P > 100 kW eta P ≤ 1.000 kW	749	% 25	% 30	% 35
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P > 1.000 kW	460	% 25	% 30	% 35
Sorkuntzako instalazio eolikoa P ≤ 20 kW	4.723	% 30	% 40	% 50

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Gehieneko kostu subentzionarioa (€/kW)	Laguntza enpresa handia (%)	Enpresa ertainetarako laguntza (%)	Enpresa txikietarako laguntza (%)
Sorkuntzako instalazio eolikoa P > 20 kW eta 500 kWra bitarte	3.072	% 30	% 40	% 50
Sorkuntzako instalazio eolikoa P > 500 kW	1.070	% 30	% 40	% 50

Modulu horiek handitu egingo dira amiantoa kentzen bada eguzki-energia fotovoltaikoa instalatzen den estalkitik, edo aparkalekuetarako estalkigisa balio duten markesina fotovoltaikoak instalatzen badira.

Modulu gehigarri horiek kontuan hartzeko, beharrezkoa da gutxienez sorkuntza-potentzia osoaren % 80 amiantoa ezabatu den azaleraren gainean kokatua egotea, eta, markesinen kasuan, sorkuntza-potentzia osoaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzea.

Sorkuntza-jarduketa osagarriak	Gehieneko kostu subentzionario osagarria (€/kW)
Amiantoa kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan	P ≤ 10 kW: 700€/kW 10 kW < P ≤ 100 kW: 660€/kW 100 kW < P ≤ 1.000 kW: 450 €/kW P > 1.000 kW: 400 €/kW
Aparkalekuetarako estalki gisa balio duten eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea	P ≤ 10 kW: 500 €/kW 10 kW < P ≤ 100 kW: 400 €/kW 100 kW < P ≤ 1.000 kW: 300 €/kW P > 1.000 kW: 250 €/kW

Laguntza kalkulatzeko, kalkulaturako kostu hautagarriaren eta diruz lagun daitekeen gehieneko kostuaren artean diruz lagun daitekeen gutxieneko kostua hartuko da kontuan. Kalkulaturako kostu hautagarria I. ERANSKINEKO B.1. atalean definitutako eta diruz lagun daitezkeen kostu guztien batukaria da, sorkuntza-instalazioari dagozkionak.

Energia **biltzeko** instalaziorako laguntzak emateko, biltegitratze-kostu subentzionarioa jarduketa mota bakoitzerako ezarritako laguntza-ehunekoarekin biderkatuko da.

Kostu subentzionarioa I. ERANSKINEKO B.1. atalean definitutako eta diruz lagun daitezkeen kostu guztien batukaria da, biltegitratze-instalazioari dagozkionak.

Biltegitratze-ahalmen izendatuaren arabera, gehieneko kostu subentzionarioa ezartzen da. Gehieneko kostu subentzionarioa eta kostu subentzionarioaren gaineko laguntza-portzentajea definitzen duten biltegitratze-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Gehieneko kostu subentzionarioa (€/kWh)	Enpresa handietarako laguntza (%)	Enpresa ertainetarako laguntza (%)	Enpresa txikietarako laguntza (%)
Biltegitratze-instalazioa Kap ≤ 10 kWh	700	%45	%55	%65
Biltegitratze-instalazioa Kap > 10 kWh eta Kap ≤ 100 kWh	500	%45	%55	%65

Biltegitratze-instalazioa Kap > 100 kWh eta Kap ≤ 5.000 kWh	350	%45	%55	%65
Biltegitratze-instalazioa Kap ≤ 5.000 kWh	200	%45	%55	%65

Subentzionatutako ratio maximoa 5 kWh/kW izango da. Baimenduta dago adierazitako gaitasun handiagoko biltegitratze-instalazioa, ratio hori gainditzen duen biltegitratze-zatirako dirulaguntzarik gabe. Instalazio fotovoltaikoen kasuan potentzia kilowattetan da (kWp).

Ratio honen kalkulurako potentzia subentzionagarria hartuko da kontuan.

### C.1.3 Tipologiako merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten ez duten eta izaera publikoa duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Guztira emango den laguntza sortze-instalaziorako laguntzaren eta biltegitratze-instalaziorako laguntzaren batura izango da, hala badagokio.

Energia **sortzeko** instalaziorako laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere guztizko kostu subentzionagarria estaliko dute.

$$\text{Sorkuntzako laguntza} = \text{Sorkuntza-modulua} \times \text{Ps}$$

Ps instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia erreala izanik, kilowattetan (kW). Kilowatt-puntatan (kWp), instalazio fotovoltaikoen kasuan

Nolanahi ere, sorkuntzako laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren sorkuntzako kostu hautagarria, modu egokian justifikatua.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten sorkuntza-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Modulu indibiduala laguntza (€/kW)	Modulu kolektiboa laguntza (€/kW)
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P ≤ 10 kW	1.000	1.110
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P > 10 kW eta P ≤ 100 kW	750	835
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P > 100 kW eta P ≤ 1.000 kW	650	720
Sorkuntzako instalazio fotovoltaikoa P > 1.000 kW	500	555
Sorkuntzako instalazio eolikoa P ≤ 20 kW	4.100	4.550
Sorkuntzako instalazio eolikoa P > 20 kW eta 500 kWra bitarte	2.700	3.000
Sorkuntzako instalazio eolikoa P > 500 kW	1.150	1.275

Modulu hauek gehitu egingo dira fotovoltaikoa instalatzen den estalkiko amiantoa kentzen den kasuan, edo aparkalekuetako estalki gisa balioko duten markesina fotovoltaikoak instalatzen badira. Modulu gehigarri hauek kontuan har daitezten, beharrezkoa da sorkuntza-potentzia osoaren gutxienez % 80 amiantoa kendu den azaleraren gainean kokatuta egotea, eta markesinen kasuan, sorkuntzako potentzia osoaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzea.

Sorkuntza-jarduketa osagarriak	Sorkuntza-modulu gehigarria [laguntza gehigarria (€/kW) (kasuen arabera)]
Amiantoa kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan	<p>P ≤ 10 kW: 200 €/kW            10 kW &lt; P ≤ 100 kW: 160 €/kW            100 kW &lt; P ≤ 1.000 kW: 110 €/kW            P &gt; 1.000 kW: 100 €/kW</p>
Aparkalekuetarako estalki gisa balio duten eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea	<p>P ≤ 10 kW: 400 €/kW            10 kW &lt; P ≤ 100 kW: 350€/kW            100 kW &lt; P ≤ 1.000 kW: 300€/kW            P &gt; 1.000 kW: 250€/kW</p>

Energia **biltzeko** instalaziorako laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere guztizko kostu subentzionagarria estaliko dute.

$$\text{Biltegitratze-laguntza} = \text{Biltegitratze-modulua} \times \text{Kap}$$

Kap izanik: benetan instalatutako biltegitratzeko instalazioaren kapazitate izendatua, orduko kilowattetan (kWh).

Nolanahi ere, biltegitratzeko laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren biltegitratze-kostu hautagarria, modu egokian justifikatua.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten biltegitratze-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)
Biltegitratze-instalazioa Kap ≤ 10 kWh	490
Biltegitratze-instalazioa Kap > 10 kWh eta Kap ≤ 100 kWh	350
Biltegitratze-instalazioa Kap > 100 kWh eta Kap ≤ 5.000 kWh	245
Biltegitratze-instalazioa Kap > 5.000 kWh	140

Subentzionatutako ratio maximoa 5 kWh/kW izango da. Baimenduta dago adierazitako gaitasun handiagoko metaketa/biltegitratze-instalazioa, ratio hori gainditzen duen biltegitratze-zatirako dirulaguntzarik gabe. Instalazio fotovoltaikoen kasuan potentzia kilowattetan da (kWp).

Ratio honen kalkulurako potentzia subentzionagarria hartuko da kontuan.

## C.2. Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzaren zenbatekoa

Laguntza kalkulatzeko potentzia bat etorriko da kW-n, instalatutako ekoizpen termikoko potentziarekin.

### C.2.1 Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduera ekonomikorik egiten ez duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua, C.2.3 atalean adierazitakoak izan ezik

Laguntzak zenbateko finko unitario edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere guztizko kostu subentzionagarria estaliko dute.

$$\text{Laguntza} = \text{Sorkuntza-modulua} \times \text{Ps}$$

Formularen azalpena:

Ps: instalatutako ekoizpen termikoko potentzia kWetan. Kontuan hartuz instalazioaren potentziatza hartuko dela UNE-EN 14511 arauaren entseguen jarraikiz fabrikatzailearen fitxa teknikitik edo zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentziala. Berokuntza, hotza eta ur bero sanitarioa hornitzen duten bero-ponpen kasuan, berokuntza-potentzia hartuko da Ps gisa. Aplikazioak soilik hotzerako badira, hozte-potentzia hartuko da potentziatza (Ps), eta gauza bera ur bero sanitarioarako bakarrik bada; ur bero sanitarioko ekipoaren potentzia hartuko da. Ps potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.

Nolanahi ere, laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren kostu hautagarria, eranskin honen arabera, modu egokian justifikatua.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten moduluak honako hauek dira:

Sorkuntza-jarduketak	Laguntza-modulua (€/kWh)	Gehieneko laguntza (€/etxebizitza)
Klimatizazioarako eta/edo ur bero sanitarioarako instalazio aerotermikoak	500	3.000
Klimatizazioarako eta/edo ur bero sanitarioarako zirkuitu bertikal itxiko instalazio geotermikoak.	2.250	13.500
Klimatizazioarako eta/edo ur bero sanitarioarako zirkuitu irekiko instalazio geotermikoak eta hidrottermikoak.	1.600	9.000

#### C.2.2 Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Guztizko kostu subentzionarioari aplikatu beharreko laguntzaren intentsitatea enpresaren tamainaren arabera zehaztuko da:

Enpresa mota	Enpresa handia	Enpresa Ertaina	Enpresa Txikia
Laguntzaren intentsitatea	% 35	% 40	% 45

Eskaera bakoitzerako laguntzaren kalkulua produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario unitarioan (Ksum) oinarrituta zehaztuko da.

Jarduketa subentzionarioak	Ksum kostu subentzionario unitario maximoa (Ksum) (€/kW)
Instalazio aerotermikoak	1.000
Instalazio geotermikoak edo hidrottermikoak	2.000

Produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario totala honako hau izango da:

$$\text{Kostu subentzionario total maximoa (€)} = \text{Ksum} \times \text{Ps}$$

Formularen azalpena:

- Ksum: produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario unitario maximoa.
- Ps: instalatutako produkzio termikoko potentzia kWetan. Kontuan hartuz instalazioaren potentziatza hartuko dela UNE-EN 14511 arauaren entseguen jarraikiz fabrikatzailearen fitxa teknikitik edo zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia. Berokuntza, hotza eta ur bero sanitarioa hornitzen duten bero-ponpen kasuan, berokuntza-potentzia hartuko da Ps gisa. Aplikazioak soilik hotzerako badira, hozte-potentzia hartuko da potentziatza (Ps), eta gauza bera ur bero sanitarioarako bakarrik bada; ur bero sanitarioko ekipoaren potentzia

hartuko da. Ps potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.

Nolanahi ere, laguntza kalkulatzeko, aurreko formularen bidez kalkulaturako gehieneko kostu subentzionarioak ezingo du gaintu B.2 atalaren arabera egin beharreko jarduketaren kostu hautagarria, behar bezala justifikatuta.

C.2.3 Tipologiako merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen jarduera ekonomikorik egiten ez duten eta izaera publikoa duten onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Guztizko kostu subentzionarioari aplikatu beharreko laguntzaren intentsitatea kostu subentzionarioaren % 50 izango da.

Eskaera bakoitzerako laguntzaren kalkulua produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario unitarioan (Ksum) oinarrituta zehaztuko da.

Jarduketa subentzionarioak	Ksum kostu subentzionario unitario maximoa (Ksum) (€/kW)
Instalazio aerotermikoak	1.130
Instalazio geotermikoak edo hidrotermikoak	2.130

Produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario totala honako hau izango da:

$$\text{Kostu subentzionario total maximoa (€)} = \text{Ksum} \times \text{Ps}$$

Formularen azalpena:

- Ksum: produkzio termikoko instalazioaren kostu subentzionario unitario maximoa.
- Ps: instalaturako produkzio termikoko potentzia kWetan. Kontuan hartuz instalazioaren potentziatza hartuko dela UNE-EN 14511 arauaren entsegu jarraikiz fabrikatzailearen fitxa teknikitik edo zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia. Berokuntza, hotza eta ur bero sanitarioa hornitzen duten bero-ponpen kasuan, berokuntza-potentzia hartuko da Ps gisa. Aplikazioak soilik hotzerako badira, hozte-potentzia hartuko da potentziatza (Ps), eta gauza bera ur bero sanitarioako bakarrik bada; ur bero sanitarioko ekipoaren potentzia hartuko da. Ps potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.

Nolanahi ere, laguntza kalkulatzeko, aurreko formularen bidez kalkulaturako gehieneko kostu subentzionarioak ezingo du gaintu B.2 atalaren arabera egin beharreko jarduketaren kostu hautagarria, behar bezala justifikatuta.

## II. ERANSKINA - DOKUMENTAZIOA

### A. Eskaera-fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

#### A.1.- Laguntza-eskaera egiteko eskatutako administrazio-dokumentazioa

##### A.1.1 Edozein eskatzaile-motarako

- a) Laguntzaren eskatzailearen, eta, bidezko bada, eskatzailea legez ordezkatzeko duen pertsonaren NANaren/AIZren kopia, eskaera pertsona fisiko edo erakunde juridiko bat ordezkatzeko edo talde, elkarte edo erkidego bat ordezkatzeko aurkeztu ote den adierazita. NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta pertsona interesdunak espresuki uko egiten ez badio EEEK haren nortasun pertsonaleko datuak kontsultatzeari.

Bestetik, eskatzailearen IFZren/AIZren kasurako, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak Administrazio publikoei eskumena ematen die beren esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.

- b) Eskaera lege-ordezkarari baten bidez aurkeztu bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du legez ezarritako baldintzetan eta ahalordetzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko du. Eskaera sinatzen duenaren (lege-ordezkarria) NAN/ANZaren kopia ere aurkeztuko da.
- c) Eskaera pertsona ordezkari baten bidez aurkeztu bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du eta ordezkari emateko dokumentua ([www.eve.eus](http://www.eve.eus) webgunean eskuragarri dagoena) aurkeztu beharko du, non laguntza-eskaera sinatzeko eta kudeatzeko baimena emango baita. Eskaeraren sinatzailearen (pertsona ordezkaria) NANaren kopia ere aurkeztu beharko da.
- d) Pertsona eskatzaileak edo haren lege-ordezkarriak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren pertsona eskatzaileari dagokionez:

- Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.
- Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
- Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagokionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan, aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

- Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaeradatan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.
- Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera, EAZ Sistemaren diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatuekin batera, ez dela gainfinantzatzen ari, eta konpromisoa hartzen duela laguntza-eskaeraren xede den jarduera edo jomuga ez gainfinantzatzeko (hau da, ez du gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua).
- Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean ez dela erori.
- Jarduera ekonomiko bat egiten badu, EBk hartutako erabaki baten ondorioz ez dagoela zigortua, ez dagoela krisialdian, krisialdian dauden enpresen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Batasuneko Zuzentarauek ezarritakoaren arabera (Batzordearen Jakinarazpena, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31), aldeztu aurretik eman zaien edozein laguntza edo dirulaguntzaren gainean egiteko dagoen berreskuratze-agindu baten pean ez dagoela, laguntza legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina deklaratu delako, edo emakidan esleituta zetozkion betebeharren edozein ez-betetzegatik.
- Sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea ez bada ( EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea).
- Jarduera ekonomikoren bat egiten badu, onuraduna krisian ez dagoela adierazten duen adierazpena, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Europako Erkidegoko Jarraibideetan ezarritakoaren arabera (Batzordearen Komunikazioa, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31koa).
- Aurreikuspenaren arabera, laguntzaren xede den autokontsumo-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren urteko batura instalazio horrek urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago izango da betiere. Sortutako energia elektrikoaren monitorizazio-sistema bat eduki beharko du instalazioak, honako funtzionaltasun hauekin:
  - *Gutxienez, instalazio berriztagarriak egunean, hilean edo urtean produzitutako energia erakutsi beharko du, eta aldi horietarako dagokion kontsumo energetikoa. Sorkuntza kolektiboko instalazioen kasuan, sortutako energia bakarrik erakutsi beharko da.*
  - *Sistemak datu gehigarriak erakusteko aukera ere izango du, hala nola saihestutako CO2 emisioak eta instalazioaren jabearentzat sortutako aurrezki ekonomikoa.*

- *Gailu mugikorren bidez edo web aplikazioaren bidez eskuratu ahalko da informazio hori.»*

- Eguzki-energia fotovoltaikoa instalatzen den estalkitik amiantoa kentzen bada, edo aparkalekuetarako estalki gisa balio duten markesina fotovoltaikoak instalatzen badira, sorkuntza-potentzia osoaren % 80 gutxienez amiantoa kendu den gainazalaren gainean kokatuko da, eta, markesinen kasuan, sorkuntza-potentzia osoaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatuko da.

- e) Pertsona eskatzailea titularra den kontuaren IBAN kodea egiaztatzeko banku-ziurtagiria. Kontu-zenbaki horretan ordainduko da azkenean ebatzitako dirulaguntza, laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak betetakoan eta eskatzailea pertsona onuradun bihurtutakoan.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

#### **A.1.2. Gehitu beharrekoa, laguntzaren eskatzailea Jabeen Erkidegoa bada**

- a) Jabeekideen erkidegoen kasuan, presidentea izendatzeko batzarraren akta.

#### **A.1.3. Gehitu beharrekoa, laguntzaren eskatzailea 651/2014 Erregelamenduaren arabera enpresatzat hartzen bada**

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, non enpresa txikia, ertaina edo handia dela adieraziko den, EB 651/2014 Erregelamenduko 1. Eranskinean jasotako definizioaren arabera, edo, hala badagokio, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik gabeko erakunde bat dela.

Horrez gain, enpresa txiki edo ertainak badira 651/2014 Erregelamenduko 1. Eranskineko 2. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:

- Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
  - Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.
- b) Eskatzailearen jarduera ekonomikoari dagokion EJSN kode eguneratua jasotzen duen dokumentu ofiziala, hala nola pertsona onuradunaren zerga-identifikazioko txartela, zentsu-aitorpena, ekonomia-jardueren gaineko zerga, eratzeko eskritura, etab.
- c) Indarreko araudiaren arabera berdintasun-plan bat edukitzera behartuta dauden enpresatzat, plan horren kopia edo, hala dagokionean, EAEko Berdintasun Planen Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (edo baliokidean) erregistratu eta bertan utzi dela ziurtatzen duen ziurtagiria. 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, emakumeen eta gizonen berdintasun-alorreko Estatuko Legerian ezarritakoaren arabera sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatiko jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurrien ezarpena egiaztatzen duen dokumentua.

#### **A.1.4. 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan**

30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eskatzaileak zuzenbide publikoko erakundeez bestelako pertsona juridikoak direnean, irabazi asmodunak eta, beraz, merkataritza-eragiketetan **berankortasunaren** aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari lotutakoak, (aurrerantzean, "3/2004 Legea"), aipatutako legean onuradun izateko ezartzen diren ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Ezarritako betetze-maila egiaztatzeko, frogabide hauek erabiliko dira:

*i.- Kontabilitate-araudiaren arabera galera-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona juridikoak:*

- Erakundeak, galera-irabazien kontu laburtuak aurkezteko, kontabilitate-araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa:
  - Eskuragarri dagoen azken urtekoaren balantze onartua.
  - Azken urteko galera-irabazien kontu laburtuak, dagokion erregistroan inskribatutakoak, edo, errekerimendu-epea amaitzean inskribatuta ez badaude, onartutakoak.
  - Altan dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emana, erakundearen kotizazio-kodeei buruz lehen adierazitako dokumentazioari dagokion urteari buruzkoa.
- Administrazio-organoak edo horren baliokideak, behar besteko ordezkaritza-ahalordea izanda, sinatutako ziurtagiria, non 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak zenbateraino betetzen diren adierazten baita. Egoera hori egiaztatu ahal izango dute, halaber, galera-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoei buruzko atalean aurreikusitako frogabideen bidez (DLoren 13.3.bis artikulua b) letra).

*ii.- Kontabilitate-araudiaren arabera galera-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoak:*

ii.a) ROACen inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiria, ikuskatutako azken urteko kontuen memorian deskribatutako ordainketen arloko informazioaren transkripzio banakatua jasotzen duena, horietatik 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen betetze-maila lortzen dela ondorioztatzen denean, 3/2004 Legea aldatzen duen uztailearen 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak eskatutako informazioan oinarrituta. Ziurtagiri hori baliozkoa izango da hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte.

ii.b) Ezinezkoa bada aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria jaulkitzea, «Adostutako Prozeduren Txostena» aurkeztu beharko da, KAEOn inskribatutako auditore batek emana, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeke dauden fakturen lagin adierazgarri baten berrikuspenean oinarrituta, 3/2004 Legearen ordainketa-epeak betetzeari buruzko salbuespenik antzematen ez bada, edo, atzeman ez gero, horiek ez badute eragozten enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen (aurrerantzean, "18/2022" Legea) azken xedapenetako seigarrenean, d) letran, bigarren apartatuan, aurreikusitako betetze-maila lortzea.

DLoren ondorioetarako, paragrafo honetan eskatutako baldintza betetzat joko da, 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila berdina edo handiagoa bada 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenean, d) letrako bigarren paragrafoan, aurreikusitako ehunekoarekin alderatuta.

## A.2.- Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazio tekniko-ekonomikoa

### **A.2.1. Energia-iturri berriztagarriekin autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioetarako**

a) Hautatutako eskaintza, non zehatz-mehatz banakatu beharko diren aurrekontu-partida guztiak edo jarduera subentzionagarriari buruzko kontzeptuak. Argi eta garbi bereizi beharko dira sorkuntza-instalazioari dagozkion partidak, batetik, eta biltegitratze-instalazioari dagozkion partidak, bestetik.

Kontratazio publikoko araudiaren eraginpeko azken eskatzaileen kasuan, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du adierazitako dokumentazio hori.

b) Hala dagokionean, hainbat hornitzailei eskatutako eskaintzen multzoa. Gogorarazten da 5.3 oinarriaren arabera eta gastu subentzionagarriaren kopuruaren arabera, gutxienez hiru (3) eskaintza behar direla, egiteko proposamena haien artean. Eskaintza horiek elkarren artean konparagarriak izan behar dute instalatu beharreko potentziari dagokionez eta, biltegitratzea gehituz gero, baita instalatu beharreko gaitasunari dagokionez ere.

c) Jarduketak egingo diren kokapenaren argazki-erreportajea, jarduketak gauzatu aurretik.

- d) Instalazio berriaren proiektuaren memoria deskribatzaile teknikoa, gutxienez honako informazio honekin:

Teknologia fotovoltaikoa erabiliz autokontsumorako elektrizitatea sortzeko instalazioetarako

1. *Datu Orokorrak*

Jarduketaren tipologia: autokontsumoa 244/2019 EDren arabera, isolatua, 244/2019 EDra bilduta ez dagoen sorkuntza	
Jarduketa subentzionagarriaren deskribapena	
Proiektuaren kostua, guztira:	€
Kostu hautagarriak, partiden banakapena barne	€

Proiektuaren kokapena (zuzendaritza)		
Proiektuaren kokapen zehatza (latitueda/longitueda)	Lat.;	Long.:
Teknologia (monofaziala, bifaziala)		
Kokapena (estalkia, lurzorua, fatxada...)		
Modulu fotovoltaikoen potentzia izenduna	kWp	
Modulu fotovoltaikoen marka, modelo eta kopurua		
Inbertitzaileen potentzia izenduna	kW	
Marka, modelo eta inbertsiogileen kopurua		
PVGIS sistemaren arabera instalazioak urtean sor dezakeen energia	kWh/urte	
Instalazio mota	Isolatua	Sareari konektatua
Sorkuntza-modalitatea (indibiduala/kolektiboa)	Indibiduala	Kolektiboa
Sorkuntza-modalitatea (soberakinekin /soberakinik gabe)	Soberakinekin	Soberakinik gabe
"Soberakinekin" modalitatearen kasuan (konpentsazioarekin/sarerako salmentarekin)	Konpentsazioarekin	Sarerako salmentarekin
Kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala.		

Bizitegi-sektoreko jabeen erkidegoek, energia berriztagarrien erkidegoek eta herritarren energia-erkidegoek CUPS bat adierazi beharko dute gutxienez, eta egokiena kontsumitzaileen CUPS guztiak zehaztea izango litzateke.

Biltegitratzea	Bai / Ez
Teknologia (gela, ion-litioa, ...)	
Bateria kopurua	
Biltegitratze-sistemaren kapazitatea	kWh
Biltegitratze-instalazioaren potentzia	kW

Estalkiko amiantoa kentzea	Bai / Ez
Modulu fotovoltaikoen potentzia izenduna	kWp
Amiantoa kentzen den estalkiaren gaineko modulu fotovoltaikoen potentzia izenduna	kWp

Markesina fotovoltaikoak aparkalekuetan	Bai / Ez
Modulu fotovoltaikoen potentzia izenduna	kWp
Markesinen gaineko modulu fotovoltaikoen potentzia izenduna	kWp

2. *Proiektuaren deskribapen teknikoa, gutxienez, honako hauek barne:*

- Instalazioaren potentzia.

- Instalazioaren konfigurazioa: egitura mota (planokidea, inklinatua, jarraitzailearekin...).
- Orientazioa: fotovoltakoien kasuan, hegoaldearekiko desbideratzearen eta inklinazio-angeluaren arabera.
- Errendimendu-kalkulua. Instalazio fotovoltakoien kasu espezifikoan, Europar Batasunak garatutako PVGIS Irradiazio Fotovoltakoiko Informazio Geografikoko Sistemari oinarrituta egingo da kalkulua, % 14ko galera estandarrak aintzat hartuta, honako link honen bitartez: [https://re.jrc.ec.europa.eu/pvg\\_tools/es/#PVP](https://re.jrc.ec.europa.eu/pvg_tools/es/#PVP).
- Urteko produkzio-aurreikuspenaren simulazioa.
- Proposatutako ekipamendua:
  - o Elektrizitatea sortzeko ekipoa:
    - a) Elektrizitatea sortzeko ekipo kopurua (modulu fotovoltakoak) eta haien potentzia unitarioa.
    - b) Marka eta modeloa.
    - c) Produkzio-ekipoen teknologia mota: beste ezaugarri batzuen artean zehaztuko dira panel mota (monokristalinoa edo polikristalinoa).
  - o Inbertitzailea:
    - a) Inbertitzaile kopurua eta haien potentzia unitarioa.
    - b) Marka eta modeloa.
    - c) Ezaugarri tekniko espezifikoak.
  - o Erregulagailua (instalatzeko gero):
    - a) Kopurua eta mota.
  - o Biltegiatze-ekipoak (instalatzeko gero):
    - a) Teknologia (gela, ion-litioa, ...)
    - b) Bateria kopurua
    - c) Biltegiatze-sistemaren gaitasuna (kWh)
    - d) Biltegiatze-instalazioaren potentzia (kW)

Teknologia eolikoa erabiliz autokontsumorako elektrizitatea sortzeko instalazioetarako.

### 1. Datu Orokorrak

Jarduketaren tipologia: autokontsumoa 244/2019 EDren arabera, isolatua, 244/2019 EDra bilduta ez dagoen sorkuntza	
Jarduketa subentzionagarriaren deskribapena	
Proiektuaren kostua, guztira	€
Kostu hautagarriak, partiden banakapena barne	€

Proiektuaren kokapena (zuzendaritza)		
Proiektuaren kokapen zehatza (latitua/longitua)	Lat.:	Long.:
Potentzia unitario izenduna	kWp	
Ekipo kopurua		
Potentzia izendun totala	kWp	
Tentsio nominala	V	
Instalazio mota	Isolatua	Sareari konektatua
Sorkuntza-modalitatea (indibiduala/kolektiboa)	Indibiduala	Kolektiboa
Sorkuntza-modalitatea (soberakinekin /soberakinik gabe)	Soberakinekin	Soberakinik gabe
"Soberakinekin" modalitatearen kasuan (konpentsazioarekin/sarerako salmentarekin)	Konpentsazioarekin	Sarerako salmentarekin
Kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala		

Bizitegi-sektoreko jabeen erkidegoek, energia berriztagarrien erkidegoek eta herritarren energia-erkidegoek CUPS bat adierazi beharko dute gutxienez, eta egokiena kontsumitzaileen CUPS **guztiak** zehaztea izango litzateke.

### 2. Proiektuaren deskribapen teknikoak, gutxienez, honako hauek barne:

Aerosorgailua:

- a. Fabrikatzailea/modeloa
- b. Mota (ardatz bertikala/horizontala)
- c. Pala kopurua
- d. Palen materiala
- e. Errotorearen diametroa (m)
- f. Pisua (kg)
- g. Aerosorgailuiluaren potentzia-kurba

Dorrea:

- a. Mota (tubularra, ...)
- b. Altuera (m)
- c. Materiala
- d. Pisua (kg)

Haizearen abiadura (m/s)

- a. Abiatzekoa
- b. Nominala
- c. Jasandako haize-abiadura maximoa funtzionamendu bikainean

Urteko produkzio-aurreikuspenaren simulazioa.

Biltegitratze-ekipoak (instalatz gero):

- a. Teknologia (gela, ion-litioa, ...)
- b. Bateria kopurua
- c. Biltegitratze-sistemaren gaitasuna (kWh)
- d. Biltegitratze-instalazioaren potentzia (kW)

- e) Energia-sorkuntzako ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).
- f) Biltegitratze-ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).
- g) Instalazio fotovoltaikoetarako, PVGISen "Sarera konektatutako FV sistema baten errendimendua" dokumentua [https://re.jrc.ec.europa.eu/pvg\\_tools/es/#PVP](https://re.jrc.ec.europa.eu/pvg_tools/es/#PVP)
- h) Eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, urteko zenbaketan laguntzaren xede den sorkuntza-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura instalazioak sortutako urteko energiaren % 80 edo gehiago dela **justifikatzeko**.
- i) Biltegitratze-sistemak barne hartuz gero, eskumeneko teknikari edo enpresa instalatzaile batek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, non egiaztatuko den biltegitratze-sistema, sareari zuzenean lotu beharreak, sorkuntza-instalazioaren zati izango dela. Eta baterian **kargatutako energiaren % 75, gutxienez**, sorkuntza-instalaziotik etorri beharko da.
- j) Energia elektriko berriztagarria sortzeko instalazioen kasuan, nahiz eta, 244/2019 Errege Dekretuaren arabera, autokontsumorako ez izan, kontsumitzaileen eta sorkuntza-instalazioaren arteko jabetza-lotura egiaztatzen duen dokumentua. Dokumentu horretan sorkuntzari lotutako pertsona kontsumitzaileak identifikatu ahal izango dira.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

#### A.2.2. Energia berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioetarako

- a) Jarduketak egikarrituko dituen enpresaren edo enpresen aurrekontua. Behar bezala xehakaturata egon beharko du, jarduketa subentzionagarriaren partida ekonomiko esanguratsuak bereiztea ahalbidetzeko.  
Kontratazio publikoko araudiaren eraginpeko azken eskatzaileen kasuan, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du adierazitako dokumentazio hori.
- b) Dagokionean: Hainbat hornitzaileari eskatutako eskaintzen multzoa. Gogorarazten da 5.3 oinarriaren arabera eta gastu subentzionagarriaren kopuruaren arabera, gutxienez hiru (3)

eskaintza behar direla, onartutako proposamena haien artean.

Eskaintza horiek elkarren artean konparagarriak izan behar dute instalatu beharreko potentziari dagokionez, eta gutxieneko desbideratze bat onartzen da horien artean eskaintako potentzian.

- c) Jarduketak egingo diren kokapenaren argazki-erreportajea, jarduketak gauzatu aurretik.
- d) Energia berriztagarriak erabiltzeko instalazio berriaren proiektuaren memoria deskribatzaile teknikoa, gutxienez honako informazio honekin:

Jarduketaren tipologia	
Jarduketa subentzionagarriaren deskribapena	
Instalazioaren potentzia	kW
Ekipo kopurua	
Unitateko potentzia	kW
Instalazioak urtean sor dezakeen energia	
Instalazioaren funtzionamendua	(orduak/urtean)
Proiektuaren kostua, guztira	€
Instalazioak urtean sor dezakeen energia	kWh/urte
Klimatizazio-azalera	m <sup>2</sup>
Kostu hautagarriak, partiden banakapena barne	€

Proiektuaren kokapena (zuzendaritza)		
Proiektuaren kokapen zehatza (latitudea/longitueda)	Lat;	Lon:
Teknologia		
Fabrikatzailea		
Marka		
Modeloa		
Lehendik dauden instalazioak eraitsiko dira?	Bai/Ez	
Zer energia-iturri erabiltzen da gaur egun eskari termikoak betetzeko?	Bat ere ez/Zehaztu	
Familia bakarreko edo familia anitzeko (blokea) etxebizitza da?	Familia bakarrekoa/Familia anitzekoa	
Etxebizitza-blokeetarako: Bloke barruko etxebizitza eta lokalen kopurua	Etxebizitzak	
	Lokalak	
Instalazio hibridoa: Instalazio horrez gain, ba al da instalazio konbentzionalen laguntzarik?	Bai/Ez	

*Proiektuaren kokapena argi eta garbi identifikatu beharko da, posta-helbide osoa (kalea, zenbakia edo km eta udalerrria), udalerrria eta partzela edo poligono-zenbakia, katastro-erreferentzia edo UTM koordinatuak adierazita.*

- e) Sorkuntza termikoko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).
- f) Instalazioa legezatzeko zehaztapen teknikoak egitea nahitaezkoa den kasuetan, proiektua aurkeztu beharko da (instalazioa legezatzeko beharrezkoa bada, EITen ezarritakoaren arabera), edo memoria teknikoa, egin beharreko jarduketak eta abiapuntuko egoera behar bezala deskribatzen dituen, teknikari eskudunak edo enpresa instalatzaileak sinatuta, dagokionaren arabera.
- g) Diruz lagundu daitezkeen jarduketei dagokienez, EITen ezarritakoaren arabera proiekturik edo memoria teknikorik eskatzen ez den kasuetan, proiektuaren memoria deskribatzaile teknikoan honako hauek gehituko zaizkie aurreko datuei:

Kontzeptua	Berokuntza	Hozte-sistema	Ur bero sanitarioa
Potentzia (KW)			
Urteko energia estimatua (kWh/urtean)			
Urtaroko batez besteko errendimendua			
Konsumitutako energia elektrikoa (kWh/urtean)			

Funtzionamendu-orduak (orduak/urtea)			
---	--	--	--

h) Geotermiaren instalazioetarako, instalazio geotermikoak direnean, honako hauek gehituko dira:

Kontzeptua	Sistema (irekia/itxia)	Kopurua zundaketak	Zundaketa- longitudea (m)
Bilketa-eremua			

## B. Justifikazio-fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa

### B.1.- Egindako jarduketak justifikatzeko beharrezko dokumentazio administratibo-ekonomikoa

a. Eskatzaileak edo haren lege-ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota geratuko diren jarduketaren eskatzaileari dagokionez:

- Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.
- Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
- Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan, aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

- Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaeradatan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.

Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera, EAZ Sistemaren diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatuekin batera, ez dela gainfinantzatzen ari, eta konpromisoa hartzen duela laguntza-eskaeraren xede den jarduera edo xedea ez gainfinantzatzeko (hau da, ez du gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua).

- Ez dagoela ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal

eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean.

- Honako hauek bermatzeko konpromisoa hartzen du:
    - Estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jarduketei aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.
    - Estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta
    - Iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta neurritzkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan, pertsona fisikoentzat izan ezik.
  - Eguzki-energia fotovoltaikoa instalatzen den estalkitik amiantoa kendu bada, edo aparkalekuetarako estalki gisa balio duten markesina fotovoltaikoak instalatzen badira, sorkuntza-potentzia osoaren % 80 gutxienez amiantoa kendu den gainazalaren gainean kokatuko da, eta, markesinen kasuan, sorkuntza-potentzia osoaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatuko da.
  - Biltegitratze-instalazioaren kasuan, instalazio horrek urteko energiaren % 75 xurgatuko du, gutxienez, zuzenean konektatutako energia elektriko berriztagarria sortzeko instalaziotik.
- b. Egoitza-sektoreko jabeen erkidegoentzat, energia berriztagarrien erkidegoentzat eta energiaren herritar-erkidegoentzat, eta nortasun juridikorik gabeko beste edozein talderentzat, kontsumitzaile guztien izen-abizenak eta NANA jasotzen dituen dokumentua.
  - c. Taula formatuan sailkatutako eta onuradunak sinatutako zerrenda, egindako jarduketei buruzko eskaerei eta/edo kontratuei buruzkoa. Eskaera edo kontratu bakarra badago, ez da beharrezkoa zerrenda sailkatu hori. Honako hauek bildu beharko ditu gutxienez: eskatzailearen zenbakia, eskaintzaren zenbakia, eskaintzaren data, kontzeptua, eskaintzaren zerga-oinarria (BEZik gabe), hornitzailearen izena, eskaeraren data, eskaeraren zerga-oinarria (BEZik gabe), eta eskaeraren zenbateko totala BEZarekin.
  - d. Eskaerak, aurrekontuen onespenuk, edo pertsona onuradunaren eta enpresa kontratist(ar)en artean formalizatutako kontratua/k, partida ekonomikoak xehatuta eta banakatuta aurkeztu beharko direlarik. Erantsitako partida ekonomikoak dauzkan dokumenturik ez da onartuko, baldin eta partida horiek galarazten badute azterlanaren garrantzizko partida ekonomikoak bereiztea.
  - e. Fakturen eta dagozkien bankuko ordainketa-egiaztagirien taula formatuko zerrenda sailkatua eta pertsona onuradunak sinatua. Egindako inbertsio hautagarriari dagozkion agiriak izango dira eta aurkeztutako aurrekontu eta kontratuei erantzungo diete. Honako hauek bildu beharko ditu gutxienez: igorlearen izena, fakturaren zenbakia, fakturaren data, kontzeptua, zerga-oinarria (BEZik gabe), zenbateko totala BEZarekin, ordainketa-data eta ordaindutako zenbatekoa (BEZarekin).
  - f. Jarduketa subentzionagarria egin izana justifikatzen duten fakturak, pertsona onuradunaren izenean emanak 2.1 oinarrian zehazten den bezala, eta, banakatuta, partiden arabera ekonomikoki balioztatuta, eta 4. oinarrian adierazitako epeen arabera datatuta.
  - g. Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko aukera ematen dutenak: laguntzaren onuraduna, ordainketa jasotzen duen hirugarrena, ordainketa-data (balio-data) eta laguntzako jarduketa identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.

## B.2.- Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa

### **B.2.1. Energia-iturri berriztagarriekin energia elektrikoa sortzeko instalazioetarako**

- a. «Ex post» jarduketa ongi egikaritu dela justifikatzen duen dokumentazioa, egikaritutako jarduketa motaren arabera, kasuan-kasuan, eta nahitaezkoa denean:

- Obra-zuzendariak eta obra-egikaritzapenaren zuzendariak sinatutako ziurtagiria, nahitaezkoa denean.
  - Sorkuntza-elementuak zerbitzuan jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena organo eskudunaren zigiluarekin.
  - Horrez gain, organoari eman zaion diseinuko proiektuaren edo memoria teknikoaren kopia erantsiko da (jarduketaren tipologiarako dagokionaren arabera).
  - Sorkuntza kolektibokoak direla edo familia anitzeko eraikin batean gauzatuko direla adierazi duten proiektuek justifikazioa aurkeztu beharko dute, dela banaketa-irizpideak jasotzen dituen akordioa, parte-hartzaile guztien sinadurarekin, dela jabeen erkidegoaren erabakia, dela sorkuntza mota hori adierazten duen sorkuntzako erregistro administratiboan sartu izanaren justifikazioa.
- b. Kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen CUPS (Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala).  
Sorkuntza kolektiboko instalazioen kasuan, kontsumitzaile **guztien** CUPSak jasotzen dituen dokumentua.
- c. Egindako jarduketaren argazki-erreportajea, jarduketaren ondorengo egoera orokorraren, eta kasuan-kasuan, laguntzaren xede diren ekipamendu eta instalazio nagusien egoeraren argazkiak biltzen dituen, baita monitorizazio-sistemaren datuak ikusteko pantailarenak ere.
- d. Eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, urteko zenbaketan laguntzaren xede den sorkuntza-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura instalazioak sortutako urteko energiaren % 80 edo gehiago dela **justifikatzeko**.
- e. Eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, honako hau jasotzen duena: obrek dirauten bitartean, sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen % 70 gutxienez (pisuan) (17 05 04 EHZ kodea duten hondakinak izan ezik) beste material batzuk berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balioztatzeko prestatzea, beste material batzuk ordezteko hondakinak erabiliz egindako betelanak barne.
- EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-justifikazioa behar bezala aztertzeke beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

### B.2.2. Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioetarako

- a) Jarduketak behar bezala egin direla justifikatzen duen txostena, bertan jasotzeko benetan gauzatutakoa, lortutako emaitzak eta, hala badagokio, eta nahitaezkoa denean:
- Obra-zuzendariak eta obra-egikaritzapenaren zuzendariak sinatutako ziurtagiria, nahitaezkoa denean.
  - Sorkuntza-elementuak zerbitzuan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena, EAEko organo eskudunaren zigiluarekin, EITEn arabera.
  - Horrez gain, organoari eman zaion diseinuko proiektuaren edo memoria teknikoaren kopia erantsiko da (jarduketaren tipologiarako dagokionaren arabera).
- b) Bero-ponpen kasuan (aerotermikoak, hidrottermikoak, geotermikoak), SPFaren balioa egiaztatuko da ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoaren bidez.
- c) Argazki-erreportajea, jarduketak egin zaizkien hasierako instalazioei zein laguntzaren xede izan diren instalazioei buruz, ekipo eta/edo instalazio nagusiak identifikatuta, bai eta horien ezaugarri-plakei buruz ere.

EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-justifikazioa behar bezala aztertzeke beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.